

Gai ordena:

- 1.- FRONTOIKO PLAZAKO BANKUAK
- 2.- ESKOLA
- 3.- BEITIKO REJILA
- 4.- ENERGIA
- 5.- ZABORRAK
- 6.- ARGITERIA PUBLIKOA
- 7.- BEKO KALE
- 8.- UR KONTSUMOA
- 9.- XAGUXARRAK
- 10.- HILERRIKO BARANDILA
- 11.- KANALOIAK

1.- FRONTOIKO PLAZAKO BANKUAK

Bi katalogo ikusi ditugu eta aurrekontuak eskatzekotan geratu gera: hormigoizko dadoak eta egurrezko aulki normalak. Kontuak izan beharrekoa izango da mantenimendua. Etxe desberdinei proposamenak eskatuko zaizkie, posteak libratuz ze banku jarri daitekeen jakiteko.

2.- ESKOLA

Eskola Txikiaren datuak jasotzeko zain gaude, Eusko Jaurlaritzako arkitektoaren erantzunaren zain.

3.- BEITIKO REJILA

Aurreko batean rejila moldatzea erabaki bazen ere (zuloa egin ura erortzen den lekuan), oraingoa rejila kentzea erabaki da.

4.- ENERGIA

Efizientzia ardatz duten diru-laguntzetarako eskolako bero-metagailuak eskatu dira.

5.- ZABORRAK

Eskolako ontziak jarri dira. Orain zaborretaz hitz egitea alperrikakoa dela uste da, izan ere, oraingo gobernu aldaketarekin funtzionamendua aldatu daitekeelako, Sasietan zer gertatuko den zain gaude.

2016ko urtarriletik aurrera, herri bakoitzak bere gastoak ordaindu beharko ditu. Egun, Itsasondoko %25 defizita du, saiatu da galera jaisten baina beste herriek jaisten ez duten bitartean alperrikako lana da, herri guztien artean ordaintzen baita. Beraz, Irailean Sasietan zer gertatuko den ikusi behar da.

6.- ARGITERIA PUBLIKOA

Gaur esleipena irabazi duen enpresak bermea jarri du eta ostegunean kontratua egingo da. Uztailaren 20rako bukatu nahi dira lanak. 2-3 urteko garantia du, gero mantenua udalaren esku

geratuko da. Mantenu hau nola egin eztabaidatu behar da (ze lan egin behar diren, ze mantenu behar duten...) Galdetzekotan geratu gara.

Zalantza azaldu da Beko Kalen ere argiteria aldatu behar ote den edo urbanizazio proiektua egin arte itxoin behar ote den.

7.- BEKO KALE

Proiektua martxan jarri behar da. EHU eta arkitektoen elkargoaren laguntzarekin "ideien leihaketa" egitea aztertzea erabaki da.

8.- UR KONTSUMOA

Betiko arazoa azaldu da, hau da, kontadore batzuk ez dutela ondo funtzionatzen. Kasu horietan kontadore normalak jartzea proposatu da.

9.- XAGUXARRAK

Xaguxarrentzak 10 kabi lortu dira basoan jartzeko. Iraila aldean edo jartzekotan geratu da.

10.- HILERRIKO BARANDILA

Hilerrian goiko aldera igotzeko baranda beharra dagüela azaldu da. Aztertzekotan geratu gara.

11.- KANALOIAK

Eskola eta gaztelekuko kanaloiak ondatuta daude. Badirudi otsaileko kazkabarrak ondatu zituela. Arazoa aztertu eta konpondu egin beharko da.